ROSARIO URANGA . 100 URTE!

109. zenbakia - 2011ko urria

artzape

GETARIARRON TOPAGUNEA

]KLOWN-EK KOLOREZ BETE ZUTEN HERRIA ENPLEGUA SUSTATZEKO ORIENTAZIOA]

Pelota

Dantza

Esku lanak

Mendi irteerak

Danborrada

Odol emateak

eta abar...

GURE TXERU

Historiadun Kultur Elkartea

TXOKO
ERRETEGIA
kaia gainean. Tlf. 943 140 539

OSTOLAZA
EDARITEGIA
kaxuelitak eta plater konbinatuak
Elkano, 33 Tel.: 943 140 214

Saiazgetaria
HOTELA
BILERA GELA DAUKAGU
Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa
T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

SAN PRUDENCIO
JATETXEA
JATETXEA - ERRETEGIA
20808 GETARIA
(ERREPIDETIK 600 METRORA)
IKUSPEGI BIKAINAK
943 14 06 27 - 943 14 04 11

OSTOLAZA
ANAIAK
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
Ionja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110

kutxa

Antxoak eta Bakailaoa
ITSAS MENDI
www.maisor.com
gutiziak
Kaia, z/g · Tel. 943 140 993 · GETARIA
Eusko Gudari, 5 · Tel. 943 248 774 · ORIO

BABEXA
Getariako dendari elkartea

ENBATA
Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA 943 424797

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

POLITENA
GURE BEREZITASUNAK:
• Aste egunean:
Eguneko Menua
• Jai egun eta Asteburuetan:
Luxuxko Pintxoak,
Bokatak eta Razioak.
• Eramateko eskaerak:
• Wi-Fi zerbitzua.
GETARIA
Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

ERROTA
OPIL - OKINDEGIA
Elkano, 7
Tel.: 943 140 017

KAIA - KAIPE JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

HARRALDE
GETARIA
NAGUSIA,17
☎ 14 07 04

"Ez da ogirik neka gaberik"



artzape

109. zenbakia

2011ko urria

]5/Txapakalezka:
Extremaduratik iritsitako neska

]6-7/Getarian zer berri?
Keta futbol taldea
Euskal Herriko Kantauri Surf Liga

]8-11/Erreportajea:
Gure Txeru

]12-13/Argazki-txokoa:
Getariako Surf Txapelketa

]14-15/Elkarrizketa:
Rosario Uranga

]23/Akordatzen:
Pilota txapeldunak 60ko hamarkadan

artzape
Eskualtxeta kulturgunea
Krixketaneko Iturrigaina

Tel.: 943 00 05 48
artzape@topagunea.com

Gure Txeru Elkartea

[argitaratzailea] Gure Txeru Elkartea [koordinazioa] Nagore Izagirre [maketazioa] Monika Uzkiza [lan taldea] Izaskun Larrañaga, Amaia Iribar, Ane Azkue, Josune Urresti, Amets Etxabe, Irantzu Ezenarro, Aitor Irigoien, Beñat Gereka, Mikel Mugika, Getaiko Gaztetxea eta Elan-Euskadi GKE [kolaboratzaileak] Xabier Insausti eta Aitor Irigoien[argazkiak] Artzape [publizitatea] Artzape [inprimaketa] Gertu [tirada] 1150 ale [lege gordailua] SS-504/01 [ISSN] 1578-469X

Getariako Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

gutunak

Oharra:

Jende ugarik esan digu aurreko aleak ez dituztela buzoietan jaso. Artzapetik barkamena eskatu nahi genuke eragozpenengatik. Bestalde, norbaitek aleren bat errekuperatu nahi balu, jarri gurekin harremanetan eta emango zaio. Artzapeko bazkideek 20 euroko kuota ordaintzen duzue urtean. Ez zaretenok, errespetatu mesedez direnen buzoian uzten dugun aldizkaria. Bestalde, banatzaileekin ere harremanetan jarriko gara ea denon artean egoera hau konpontzen dugun.

Zure gutuna Artzapen argitaratzea nahi baduzu, Txeruko postontzian utzi, Eskualtxetara ekarri edo *artzape@topagunea.com* helbidera bidali zure izen-abizenekin. Gutunak gehienez 200 hitz izan beharko ditu eta luzeagoak direnak mozteko eskubidea izango du Artzapek. Ez dugu testu iraingarririk onartuko eta Artzapek ez du bere gain hartuko argitaratzen diren iritzien gaineko erantzukizunik.

lehiaketa

artzape Lehiaketa

SARIA:

IRAILEKO ERANTZUNA:
1769ko irailaren 14an

IRAILEKO IRABAZLEA:
Erramun Aranguren

AZAROAKO GALDERA:
Zein urtetan hil zen Marco de Campos?

Artzapen bazkide bazara eta erantzuna baldin badakizu, e-mailez (artzape@topagunea.com), gutunez (kale nagusia 1-3 z/g) edo deitu (943 000 548) AZAROAREN 15a BAINO LEHEN.

Eskainitako otar eder bat

ITSAS MENDI
gutiziah
Kaia z/g
Tel.: 943 140 993
Mugikorra: 649 947 855
www.maisor.com
20808 GETARIA

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK
IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

Txapakalezka

Aitor Irigoien, Beñat Gereka eta Mikel Mugika

Denboraren makinan egindako bidaietako batean, hautsez beteriko kutxa zahar bat topatu genuen kantoi izkinan. Barnean, gure herriaren historian jasotako beldurrezko gertakarien kontakizunak gordetzen zituen:

"Bizitza berregitea erabaki nuen egunean hasi zen dena. Nire geroari norabide berri bat eman nahian; ordura arteko dena atzean utzi, eta bizileku berri bat bilatzeari ekin nion.

Interneteko sarean murgildu ostean, seinale bat bailitzan, orrialde guztiek herri batetara bideratzen ninduten. Lehenengo, supermuseo ikaragarri baten irudiak azaldu zitzaizkidan. Gida gastronomikoetan herri haren izena errepikatzen zen. Eta Wikileaks edota Anonymus gisakoen kopia eskasa zirudien orri batean, herriari buruzko kontu ez hain onak ere idatzita zeuden arren, ez nuen zalantzarik izan: herri hartara joango nintzen bizitzera. Esan eta egin; egun gutxi barru Getariarantz abiatu nintzen.

Udazkenean, harkaitzen aurka gogor lehertzen ziren olatuek eman zidaten ongietorria. Bat-batean, itsasoaren gainean, arratoi erraldoi baten itzala agertu zitzaidan. Jarraian, guztiz kiskalitako kotxe bat ikusi nuen errepidearen bazterrean, ondoan "salgai" kartela zuela… Zalantzak sentitu nituen, lehen aldiz…

Arratsaldeko 19:30ean iritsi nintzen. Urriaren 30a zen, Halloween gaua. Taberna batera zerbait hartzera joatea erabaki nuen. Hotz egiten zuen kale hutsetan. Irten bezain laster, kafetegien barnetik zelatan nituen begiradek urduri jarri ninduten. Hala, lehenengo aurkitu nuen tabernara sartu nintzen. Bertan, hain ezaguna omen zen Getariako ardoa probatzea erabaki nuen. Tabernariak eskatutakoa atera bezain laster, agure bat gerturatu, eta belarrira xuxurlatu zidan ahots larriz: "Kontuz eskatu duzunarekin… Arriskutsua da! Hori egiteko mahatsa kanpotik ere ekartzen dute!". Eta presaka, tabernatik ihes egin eta desagertu egin zen. Gertatutakoa ulertu gabe, nik basoa tragoan edan nuen.

Handik aurrerakoa gogoratze hutsak ikara sortzen dit. Zorabiatzen hasi nintzen, abduzituta banengo bezala, tabernako denak begira nituela iruditzen zitzaidan, arnasa ezin nuen ongi hartu… Kalera irten nintzen. Han, dena okertu besterik ez zen egin: lehengo kristal atzeko begiradak, etengabe txistua jotzen zebilen uniformeduna, frontoiaren atzeko argi koloretsuen mugimendu zoroa… Ikarak eta antsietateak gain hartu ninduten. Portura jaitsi nintzen, baina hura ez zen hobea: pantaloien orroa, haizearen ondorioz yate garestietako mastek elkarren aurka jotzean sortzen zuten soinu beldurgarria, itsaso zabalean ikus zitezkeen argi txiki ugari…

Horretan, tabernan ez nuela ordaindu konturatu nintzen. Nuen ausardia apurra batu, eta itzuli egin nintzen.

Tabernariak "euro bat eta erdi" erantzun zidanean soilik bueltatu nintzen nire onera. Amesgaizto bat amaitua zen. Baina beste bat hasi besterik ez zen egin: 1,50 €! Sinestezina! Merkeago aterako zitzaidan kotxez Extremadurara itzuli eta han ardo eder bat eta tapa batzuk hartzea!

Artzapetik begira

Xabier Insausti

PARISTIK VIENARA

Bi aldiz hartu zuen trena Balentziagak Paristik Vienara, bere psikoanalista bisitatzera. Beti aitzakiaren bat asmatzen zuen, ez zuelako nahi inork jakitea zein zen bere bidaiaren benetako motiboa. Jakina, Parisen ere psikoanalista oso onak badaudela. Kasualitatea izan zen nik karpeta hori topatzea, psikoanalistak utzitako paperen artean. Dirudienez, Balentziagarentzat oso garrantzitsua zen diskrezioa, baina psikoanalistak salbuespenik egin gabe kasu guztietan akta jasotzen zuen. Izan ere, idatzi horietan aurkitzen da karpeta bat "Disenatzailearen kasua", eta ez "Balentziagaren kasua" izenarekin. Kuriositatez hasi nintzen irakurtzen. Bai, ez zegoen zalantzarik, Balentziagaren kasua zen.

Bertan Balentziagaren bizitza intimoa zehatz-mehatz kontatzen da. Bere haurtzaroa Getarian, bere joera sexuala, diseinatzaile bihurtzeko zailtasunak, etab. Psikoanalista bisitatzera eraman zuen arrazoia bitxia iruditu zitzaidan. Espainiako erreginak barruko arropa diseinatzea eskatu zion. Erregea sexualki eskas xamar omen zebilen garai hartan, berarekin behintzat, (orain bezala seguru), eta horregatik erreginak berarekiko gogoa pikardien bidez estimulatu nahi ziola. Eta Balentziagak oso pikardia bereziak diseinatu zizkion. Gau batean, diseinatzailea Parisko estudioan bakarrik zegoela, kuleroa buru gainean jarri eta itxura harekin argazki bat ateratzea bururatu zitzaion. "Umekeria", esan zion psikoanalistari. Argazkia bere mahaiaren kaxoi batean ezkutatu zuen, inork ez ikusteko. Azkenean, argazkia desagerraraztea erabaki zuen; argazkia ez zegoen utzitako lekuan.

"Txikitatik nik beti bizitza publikoa eta pribatuen arteko tentsio izugarria eduki dut" kontatu zion Balentziagak psikoanalistari."Baina argazki hori desagertzearekin nire bizitza guztiz desorekatu zen. Lankide guztiak mesfidantzaz begiratzen nituen. Asteetan lo hartu ezinik egon naiz. Ezin dut lanik egin...".

Bere haurtzaroa eta gerokoak kontatzen zizkion. Asko dago ikasteko eta ezagutzeko Getariako garaiko giroaz.

Abian da Kantauri Surf Liga

Kantauri Surf Liga Euskal Herriko surflariak batzen dituen lehia da. Udaberrian jarri zen martxan, eta Getariako Lonjan taldea ere tartean da. Datorren azaroaren 13an, zarauztarren kontrako lehia izango dute getariarrek, Gaztetape hondartzan. Finala, berriz, Zarautzen jokatuko da, azaroaren 20an. Lehiaketa guztiak goizeko 10:00etan jokatuko dira, eta itxaron egin beharko dugu getariarrek zer lortzen duten ikusteko. Lonjan surf-taulak egiteko herrian dagoen lantegia da, eta haiek sortu zuten liga honetan parte hartu ahal izateko taldea. Kantauri Surf liga sei taldek osatzen dute: Getaria (Lonjan taldea); Sopela (Peña Txuri Surf Eskola), Bakio (Bakio Surf Eskola), Zarautz (Zarauzko Surf Eskola), Donibane Lohizuneko taldea eta Angelukoa. Surfaren eszenatoki interesgarria, beraz, datozen egunetan.

KSL
KANTAURI SURF LIGA

Klown-ek kolorez bete zuten herria

Ipar eta Hego Euskal Herriko klownek bat egin zuten Getarian, hilaren hasieran (urriaren 1ean eta 2an) ospatu zuten klown-ikuskizunean. Berdura plazan eskaini zuten ikusgarri koloretsuaz gain, sudur gorriek Getariako kaleak hartu zituzten eszenatokiko alaitasuna herriko kaleetan zabaltzeko. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete herritarrei haien parte-hartzeagatik, eta baita elkarte eta erakunde hauei ere: Uhartean eta Hebentik kultur elkarteak, Udala, San Juan festetako batzordea, Babexa dendarien elkartea, Txeru kultur-taldea, Gaztetxea, Elkano arrandegia, Musika Banda eta Getariako Txakolinaren elkartea. Berriz ere topo egingo dugu 2013an, Elkanori sudur gorria jartzeko.

Mendi irteera Toloñora

Datorren azaroaren 5ean Arabako Toloño gailurrera irteera dago antolaturik. 1454 metroko mendi honek Euskal Herriko zazpi probintzietako gailurretara egindako irteeren egitaraua isten du. Larrasa-Toloño izango da ibilbidea.

UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Enplegua sustatzeko orientazioa

Urola Kostako Udal Elkarteak enplegurako eta autoenplegurako orientazio-zerbitzua berregituratu eta indartu ditu. Langabeei lana bilatzen laguntzea, lana dutenei hobetzen laguntzea eta enpresa bat sortzeko asmoa dutenei laguntza eta aholkularitza zerbitzua ematea dira helburuak. Interesa duen orok 943 89 08 08 telefonora dei dezake (7:30etik 15:00etara). Bertaratu nahi duenak Zarautzen topatuko du egoitza: Urdaneta bidea 6, Abendaño industrialdea. Bertan, orientazio-teknikaria, liburutegia, Internetera konexioa duten ordenagailuak eta informazio-panelak aurki daitezke.

Keta marroiz jantziko da

Denboraldia ongi hasi dute futbolariek.

Bazkide berriak egin eta bazkide txartelak banatzen aritu da Keta futbol-taldea urrian, eta, bide batez, kolore marroiko kamiseta berriak saltzen. Herriko kolorea hartu dute kamisetetan aurtengo denboraldirako. Baina futbol-taldeak ez du kamiseta bakarrik estreinatzen; denboraldi honetan, entrenatzailea ere berria izango da: Txema Rauleaga. Taldearen hurrengo erronkak Orioko derbi berezia (Orion dute-eta futbol-zelaia), Mutriku eta Antzuola izango dira.

Denboraldia ongi hasi eta halaxe buka dezaten opa diegu beraz getariar futbol jokalariei.

Badator Santa Zezilia eguna

Datorren azaroaren 22an Santa Zezilia eguna ospatuko dugu beste urte batez. Arratsaldeko 17.30ean kalejira batek emango dio hasiera jaiari, txistulariak, panderojole eta musika eskolako ikasle guztiekin. Jarraian plazan trikitilari, abesbatza eta dantzarien emanaldia ospatuko da eta ondoren, txokolatada. 19.30ean berriz, musika bandaren kalejirak girotuko ditu herriko kaleak musikalari guztien egun honetan.

Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea (edo EWWR), 2011-11-19/27

Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen helburua da hondakinen sorrera prebenitzeko ekintza jasangarriak sustatzea, kontsumo-ohituren eta ingurumen-eraginen arteko lotura estua agerian utzita.

Horretarako, aste batean zehar hainbat erakundek antolatutako sentsibilizazio ekintzak ezagutzera emango dituzte, jendarte zabal bati mezua helarazteko.

Nork hartuko du parte Hondakinak Prebenitzeko Europako Astean?

-Proiektuko bazkide ofizial izateko nahia adierazi duten hondakin-prebentzioaren arloko agintariek. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, HHKO (Hiri Hondakinen Koordinazio Organoa) arduratuko da Europako Astea antolatzeaz. Astearen berri emateaz gain, proiektu-arduradunek proposatutako jarduerak erregistratzeaz eta balioztatzeaz arduratuko da.

-Hondakinak murriztearen garrantziaz ahalik eta jende gehien sentsibilizatzeko ekintzak gauzatu nahi dituzten proiektu-arduradunak. Hauek HHKOri aurkeztu beharko dizkiote proposamenak.

-Astean zehar proiektu-arduradunek proposatutako ekintzetan parte hartuko duten eta hondakinak murrizteko eguneroko jardueren garrantziaz jabetuko diren Europako herritarrak.

Inskribatu zure ekintza 2011ko azaroaren 4a baino lehen.

Parte hartu ahal izateko, deskribatu Europako Astean hondakin-prebentzioaren arloan gauzatuko duzun ekintza (sentsibilizazio-jarduera, informazio-kanpaina, jazoera, erakusketa, eta abar), eta bidali HHKOra.

Proposamen horiek, kategoria hauetako batean sartuta egon behar dute: administrazioa, erakundeak, GKEak, enpresak, industriak, ikastetxeak eta beste batzuk. Kontsultatu proiektuak aurkezteko irizpideak. Deskargatu hemen izena emateko inprimakia, eta bidali helbide honetara: ocru@ihobe.net. Informazioa gehiago: 943 896024an eta www.ihobe.net/maizpuru@getaria.org.

Gure Txeru, Kultur Elkarte aitzindaria

Pilota, dantza, mendi-irteerak, esku-lanak, danborrada, odol ematea, Santo Tomas jaia… Hori guztia eta askoz gehiago antolatzen du Gure Txeru kultur elkarteak. Haren babesari esker sortu zen aldizkari hau ere. Euskal kulturaren aldeko apustu garbia egin du bere sorreratik, eta 70ko hamarkadako herri-mugimenduaren protagonistetako bat izan zen.

Hamasei urteko haurrekin korua sortu zuen Mikel Zuazabeitia apaizak, Gure Txeru izenarekin. Talde hura prestatu eta Madrilgo "Festival de cantores" jaialdian parte hartu zuten. Abiapuntua hartatik, eta babesa emango zion elkarte batean pentsatuz, Gure Txeru elkartea sortu zuen. Izena kanta zahar batetik hartu zuen.

Mikel Zuazabeitia 1958. urtean iritsi zen Getariara, eta bertan eman zituen bospasei urte. Elizari lotuta jaio zen, beraz, Gure Txeru, eta, denboraren eta herri-mugimenduaren poderioz, euskal kulturaren indartzearen erreferente bihurtu zen, bai eta herriko ekitaldi nagusien antolatzaile eta babesle ere.

1976. urtean, Franco diktadorea hil eta urtebetera, alegia, euskal kulturaren aldeko apustua areagotu eta indartu zen. Kultur elkarteak protagonismo handia izan zuen ikastolaren sorreran, baita Herri Eskolarenean ere, 1978. urtean.

> **"Euskal kulturaren aldeko apostua areagotu zen 1976an"**

Ikastolak eta garaiko eskola nazionalak (Francoren herentzia) bat egin zuten, eta Txeruren bultzada ezinbestekoa izan zen garai hartan. Joxe Agustin Larrañaga Txeruko batzordean izan zen herri-mugimendua puri-purian zegoen urte haietan.

1976. urtean, pilotaren ardura hartu zuen beregain, eta elizako ordezkariarekin batera ikastolaren alde egin zuen, hura sortu zen garaian. Herri eskolaren sorreran ere parte hartu zuen, eta han ere ordezkari izan zen.

Egungo eskolako lurrak Jesuitek Eusko Jaurlaritzari saldu zizkieten, eta martxan jarri zen gaur arte ezagutzen dugun Iturzaeta Herri Eskola publikoa; ordutik, Getarian dagoen ikastetxe bakarra. Urte haiek politak eta gogorrak izan ziren, aldi berean, baina jendeak indarra eta gogoa zituen gauzak aldatzeko, errepresioa nagusi izan zen urte haietan.

1978. urtean haurren danborradarekin ere hasi zen Larrañaga; garai hartan

“Bi urte ematen dituzte Txeruko langileek

urtero ospatzen hasi ziren, baina denboraren poderioz, bi urtetik behin antolatzera pasatu zen, haurrak nekatu egiten baitziren. Larrañagaren hitzetan, “urteak pasa ahala, eta haurrak handitzen doazen heinean, ez dute urtero danborradan parte hartzeko gogorik, eta horregatik erabaki genuen bi urtero egitea hobe zela”.

Danborradaz gain, Larrañagak odol-emateak eramatea eskaini zion Txeruri. Izan ere, Mariñela elkartea sortu zenean, odol emateen ardura hartu zuen beregain Larrañagak, 1977. urtetik 1985. urtera bitartean. 1986an, Larrañagak Txeruri eskaini zion ekintza sozial haren ardura, eta ordutik, elkarteak eramaten du.

Hainbat lokal izan ditu laster 50. urteurrena ospatuko duen kultur elkarteak. Hasiera batean, udaletxe pareko egoitza batean zeuden; ondoren, egun eskailera mekanikoak pasatzen diren kaleko baxu batean, marinak utzitako egoitza batean; eta azkenik, Kale Nagusian, Udalak utzitako egoitzan; egun ere hortxe dago.

Ehun haurrek parte hartu dute azken danborradan.

“Ekitaldi handietan herritarrek ere laguntzen dute antolaketan”

Borondatezko lana

Gure Txeruko egungo batzordea zortzi pertsonak osatzen dute. Bi urtetan zehar egiten dute borondatezko lan hau, eta urtero lau pertsona berri sartzen dira. Hala, urtebete egin ostean, sartzen diren berriei erakusten diete aurreko urtekoek. Horrek esan nahi du, lau pertsona esperientziadunek sartu berri diren laurei irakasten dietela. Aurreko urteko batzordeko lau kidetik hiru zarauztarrak dira, eta sartu berri diren laurak, berriz, getariarrak.

Marina Garatek bigarren

Dantza ikastaroak egunero izaten dira Txeruko egoitzan.

urtea du Txerun. Eta berak azaldutakoaren arabera, emakumezkoek diru-kontuak eta dantza kudeatzen dituzte, oro har, eta gizonezkoek, berriz, pilota eta futbitoa.

Marinak, esaterako, dantzak eta eskulanak kudeatzen ditu, batik bat; izan ere, bera dantzari izandakoa da eta aurretik ere dantzako ikastaroak emandakoa. Hala ere, pilotatxapelketak direnean edota San Tomas egunean denek hartzen dute parte, baita herritarrek ere. "Jendeak lagundu ohi du San Tomas egunean taloak prestatuz, horrelako egunetan eskuak behar baitira".

Aurten, dantza-ikastaroetan 155 lagun daude matrikulaturik. "Iraila hilabete gogorra izaten da. Matrikulazioak jartzen dira martxan eta lan handia egoten da. Dantzak, eskulanak...; ikastaro guztiak martxan jarri eta egunak ere finkatu behar dira" Garatek adierazten duenez, dantzaren kasuan, udalak ordaintzen dio irakasleari. Neurri hori duela bi urte hartzea erabaki zuten elkarteko batzordekideek; izan ere, "gero eta zailagoa zen dantza-ikastaroak emateko konpromisoa hartuko zuen pertsona bat aurkitzea".

"Odol emaile kopurua polita izan da azken aldietan. Jendea animatu da laguntzera"

Kanpora irteerak

Dantzariak martxotik aurrera hasten dira irteerak egiten, eta horretarako arropak, autobusak, ordutegiak... antolatu behar dira. Lan handia ematen dute beraz irteera horiek. Azken bi urteetan, Lesakan, Urretxun eta Lezon izan dira. Eta bertako herrietako dantza-taldeekin harreman estua izaten dute prestakuntza guztia aurrera eramateko. Maiatzean, berriz, dantza-erakustaldia egiten dute, eta uztailean, kurtso osoan egindako lana eskertzeko, Aquaparkera irteera antolatzen dute, kurtso osoan lana gogor egin duten haur dantzariekin. Uda honetan, gainera, dantzari helduek Lapurdiko Getariara irteera prestatu zuten, eta Iparraldekoak ere hona etorri ziren. Oso esperientzia polita eta positiboa izan zen, eta harrera ona izan zuen ekimen honek.

Eskulanei dagokienez, ostegunero izaten dira Txeruko egoitzan bertan, eta hamarreko bi talde osatu dira aurtengo ikastarorako. Egia da emakumezkoak direla partehartzaile gehienak; Txeruko egoitzara sartu eta esku-lanetan ari direnei begiratu besterik ez dago, ez da gizonik ikusten.

Uztailean, urtean zehar egindako eskulanen erakusketa izaten da Kale Nagusian, hamabost egunez, Udalak antolatuta; izan ere, Txeruko egoitzan Elan Euskadiren erakusketak hartzen baitu leku. Aurtengo udan, gainera, dantzari helduen entseguak ere izan dira egoitzan, Lapurdiko Getariara irteera zela medio.

Mendira-irteerak

Mendi-irteerak ere babesten ditu Gure Txeruk. Azkena, Urbiara izan da, urriaren 23an, eta hurrengoa azaroaren 5erako dago aurreikusita. Kasu horretan, Toloño Arabako gailurrera igo beharko dute. "Herri honetan, batzuetan, zaila izaten da mendi-irteerak antolatzea, asteburu askotan baitaude hainbat ekitaldi antolatuta". Maiatzean, esaterako, ez dago asteburu bat bera libre: Euskal Jaiak direla, jaunartzeak, San Isidroak...

Bestalde, odol-ematearen ardura ere bere gain hartzen du elkarteak; Zaharren Egoitzan egiten da. Ogitartekoak prestatzen dituzte, odola eman ostean indarrak berreskuratu ahal izateko. Hiru hilabetetik behin egiten dute, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, eta 50 bat lagun izatera iritsi izan dira. Ildo horretan, Marinak azken odol-emateetan izandako parte-hartze altua azpimarratu du. "Lehen aldiz odol-emate batean parte hartu nuenean, zenbat lagun izaten ziren galdetu nuen, eta 30 inguru izaten zirela esan zidaten, baina 50 pertsona azaldu ziren. Urriaren 20an egin zen azken odol-ematea; beraz, urtarrilean izango da hurrengo txanda.

Helduen pilotari dagokionez, Xegundo Alkortak eramaten

du Txeruren izenean; Juan Luis Urrestik, berriz, haurren pilota-ikastaroak (astearte eta ostiraletan, 17:00etatik 19:00etara); ordubeteko ikastaroak dira, bi taldetan banaturik).

Ehun haur-danborradan

Danborradari dagokionez, Joxe Agustin Larrañaga arduratzen da gaur egun ere; aurten, 100 haurrek hartu dute parte.
Danborradarako aurrekontuari dagokionez, 1800 eurokoa izan zen.
Bestalde, Pachtwork ikastaroa (josteko era bat da) aurten ez da irten. Izan ere, aurten bost pertsonak besterik ez dute eman izena eta "ez zen ekonomikoa", Marinak adierazitakoaren arabera.
Elkarteko finantziazioari dagokionez, Udalaren dirulaguntzaren bidez eta bazkideen urteroko kuotetatik lortzen da. Azken horiek urtean asko aberasten du; jende askorekin egoten zara". Gaineratu duenez, "saltsa asko gustatzen zait, eta jendearekin harremanak izatea ere bai. Horregatik nago gustura elkartean".
Eta noiz ditu oporrak Txeruko batzordekide batek? Balentziaga kaleko San Juanetako dantzaldiaren ostean dator atsedena. Hala ere, uda honetan, oporrak atzeratu egin dira, dantzariek Lapurdiko Getariara egindako irteera zela medio.

Eskerrak elkarteari

Bestalde, aldizkari honen IFZ Txeruren bera da, eta horrek asko lagundu zuen euskarazko herri-aldizkari honen sorreran. Nahiz eta Gure Txeru eta Artzape entitate independenteak izan, elkarteari esker aldizkariak ez zuen notario batengana jo behar izan IFZ sortu eta ekonomikoki suposatzen duen kantitatea ordaintzeko. Mila esker bihotzez.
Hala eta guztiz ere, Artzaperen kasua ez da bakarra; elkartea sortu zenetik, hamaika ekitaldi babestu ditu. Izan ere, garai batean bizikleta-irteerak ere antolatzen baitzituen kultur elkarteak. Txirrindulari talde hark ere hartu zuen elkartearen IFZ lehenengo urratsak emateko; denborarekin, ordea, berea sortu zuen.

Argi dago, ibilbide luzea egin du Txeruk, eta jadanik, herrian historia duen elkartea da; herrian gertatzen den gauza gehienen atzean dago, lanean, nahiz eta horrek borondatezko bi urteko lan mordoa eragin.

"Bazkideak falta dira gazteen artean"

12 euro ordaintzen dituzte, eta hala, aukeratzen dituzten jardueretarako kuota merkeagoa dute. Mendi-irteera batera joateko, esaterako, bazkideak 8 euro ordaintzen ditu, eta ez denak, berriz, 11. Marinak azaldutakoaren arabera, bazkideak falta dira gazteen artean. Askok bazkide direla pentsatzen dute familiakoak direlako, eta ez da bazkide berri askorik. "Askotan gertatzen zaigu gazteekin; Txerukoak direla uste dute, betidanik beraien familia hala izan delako".
Marinaren ustez, Txeru oso ongi ikusita dago herrian, baina "barruan zauden arte ez zara jabetzen zenbateko lana den. Hala ere, oso gustura nago, gozatu egiten dut eta

Argazki Txokoa

Surf-txapeketa arrakastatsua Gaztetapen

Giro bikaina izan zen urriaren 9an eta urriaren 12an ospatu zen herriko surf-txapelketan. Larunbatean hastekoa zen txapelketa igandera atzeratu zuten, olatu kaxkarrak zirela eta. Egun horretan, nahiz eta eguraldia goibel egon, pixkanaka hobera egin zuen eta giroa ere animatzen hasi zen. Asteazkenean ospatu zen finalean, Jon Azkue izan zen body 12 azpikoan txapeldun. Kattalin Zubizarreta berriz surf 12 azpikoan, eta Jon Barreiros Surf 15 azpikoan. Body alternatiboari dagokionez, Joseba Etxabek eraman zuen lehen postua eta surf alternatiboan Aitor Andonegik. Master mailari dagokionez Dei Larrañaga izan zen lehena; body open mailan Jon Fermin Gutierrez, eta open surfean Manex Bikuña. Antolatzaileek emandako datuen arabera, aurtengo edizioan, iazkoarekin alderatuz, bikoiztu egin da parte-hartzaile kopurua; 78 izan dira. Jendeak oso aktiboki hartu zuen parte, gainera, asteazkeneko sari-banaketan, bai parrilladan eta baita bigarren eskuko denda hornitzen ere.



SOROSLE
ZERBITZUA

Rosario Uranga

"Oraingo bizitza eskasa da lehengoaren ondoan"

"Mende bat dira bi mundugerra ta ehun kalendario, gerra zibil bat, diktadura bat, aldeko ta kontrario. Mende bat dira ehun udazken, eta mila istorio…Denborak zure begiradari bere marka laga dio".

Horrela hasten da Uxue Alberdik Rosario Urangari bere 100. urtebetetzerako eskainitako bertsoa. Familia eta lagunartean ospatu zuen Getarianon, hori baitu lagun-artean biltzeko eta gozatzeko txokoa. Bizi eta umoretsu, horrela jardun zuen Rosariok solasean bere urtebetetzearen ostean. Zein ote bere sekretua?

Nola ospatu duzu urtebetetzea?
Urriaren 1ean izan zen. Familiarekin joan nintzen bazkaltzera, Kaipera. Eta gero, lagunekin eta familiakoekin elkartu nintzen Getarianon, eta sorpresa prestatu zidaten. Arkuekin errezibitu ninduten, eta Uxue Alberdik prestatutako bertsoak kantatu zizkidaten. Oso maja da Uxue Alberdi. Denok elkartu ginen, familia eta lagunak. Oso polita izan zen.

Zenbat seme-alaba dituzu Rosario?
Lau. Bat hil egin zitzaidan lau urte eta erdirekin, eta orain hiru ditut. Bi ezkonduta eta bat ezkongabea. Harekin bizi naiz. Zaharrenak 63 ditu; besteak 61, eta hirugarrenak 59.

Zenbat iloba dituzu?
Lau ditut.

Askotan gaixotu al zara zure bizitzan zehar?
Ez naiz inoiz gaixotu. Orain homeopata batekin ibiltzen naiz. Iloba dut homeopata. Iñigo. Harekin ondo. Ondo sentitzen naiz.

Nolakoa da zuretzat egun normal bat?
Goizean jaiki eta garbitu egiten naiz. Astean behin, dutxatu. Gero, gosaldu egiten dut: kiwia, zukua eta kafesnea. Segidan, ontziak garbitzen ditut, ohea egin, bazkaria eta plantxa. Lehen sukaldea garbitzen nuen, lanbasarekin. Orain pertsona bat etortzen da etxera, lanak egitera.

Eta arratsaldero, lagunekin elkartzen zara Getariano gozotegian kafea hartzeko; hori da sasoia…
Bai. Orain ez naiz kalera irteten. Semeak ekartzen nau egunero kotxez eta eraman ere bai. Etxetik ateratzeko 52 eskailera jaitsi behar ditut eta igotzeko, beste 52.

Zenbat lagun elkartzen zarete kafea hartzera?
Hamabi elkartzen ginen eta orain sei elkartzen gara. Erdiak joan dira. Gure eguna denean, kafea ateratzen dugu denontzat. Horrela ospatzen dugu.

Zein da zure sekretua hain ongi egon eta eskaileretan gora eta behera ibili ahal izateko?
Ez dakit. Oso ongi zaintzen nautelako izango da eta nik semea ere ongi zaintzen dut noski.

Zuk egiten al diozu bazkaria semeari?
Ezkongabeari bai, nik egiten diot, harekin bizi naiz eta. Afaria ere egiten nion, baina orain bakoitzak berea egiten dugu. Nik fruta afaltzen dut.

Zertan egin duzu lan zure bizitzan zehar?
Antxoan eta atunean egin nuen lan. Fabrikan maria-bainuan jartzen genuen atuna gauean, eta antxoari burua kentzen genion. Antxoari banan-banan burua kendu behar genion, saretik atera behar genuen, banaka, eskuak odolduta edukitzen genituen. Gero fabrikara joan, trapuarekin pasa…

Gogorra benetan…
Ai gure bizimodua, gogorra, baina ohitu ginen. Zumaiarrak goizeko 6:00etan etortzen ziren, eta guk, ordurako, han genituen antxoak fabrikan, mahai gainean.

Lanak aurreratuta beraz...
Bai, zumaiar asko etortzen zen garai hartan. Zarauzkoak ere bai, baina zumaiarrak gehiago. Lehen 8-10 fabrika italiar zeuden Getarian. Behin, atunari maria-bainua eman behar genion eta tximiniak su hartu zigun. Nagusiari deitu genion eta guk ordaindu behar izan genuen. Orlando zen hura.

Nola da posible hori?

"Garai gogorrak pasa genituen"

Garai horretan horrela ziren gauzak.

Beti Getarian bizi izan zara?
Beti. Gogoratzen dut 12 urterekin 40 buelta egiten nituela soka saltoan; bizia izan naiz.

Orain ere hala zaude...
Orain, belaunetik bera dut minbera. Baina, tira, oraindik bakarrik dutxatzen naiz.

Pertsona positiboa zarela esango zenuke?
Bai, ongi bizi naiz. Ez naiz inoiz gaixotu. Nire gizona ere ez zen inoiz gaixotu, baina behin gaixotu zenean joan egin zen. Hari kontu egiten egon nintzen klinikan. Baina ni oso ongi bizi naiz.

Uxue Alberdiren bertsoak esaten duen moduan "Berdura plazan aulki berde bat ipinita parez pare, utzi zintuzten ilerik eta duintasunik gabe; baina denborak egiten du nor bere lekuaren jabe: haiek lurpean usteldu dira eta zu oraindik hemen zaude". Zer gertatu zitzaizun 1936an?
Oso garai tristeak izan ziren. Falangistak etorri ziren bizarginarekin eta hilea moztu zidaten, azaroaren 4an. Gu fabrikara joaten ginen, astero sei pezeta irabazten genituen. Nire ahizpak kartzelara zigarroak bidali zituen, eta ni nintzelakoan hilea moztu zidaten, zuritu. Nik ez diot inoiz inori kalte egin.

Gai alaiago bati helduko diogu. Zer egiten zenuen lagunekin gazte garaian?
Artzapen elkartzen ginen lagun talde bat, eta han jardunean egoten ginen, hitz egiten jaietan.

Eta orain, 100 urterekin, Lourdesenean hartzen duzu kafea...
Bai, ongi bizi naiz lagunekin.

1976an bere lehen hilobarekin.

Ongi zaintzen zaituzte Lourdesek...
Oso ongi, 20 urte dira ezagutzen dudala. Kanpoan egoten ginen 8-10 lagun. Batzuetan errietan ibiltzen gara, baina oso ondo moldatzen gara (barre egiten du). Ez dut uste inorekin haserretu naizenik.

Hori ez da posible!
Beno, tira- biraren bat bai, baina motxa.

Joaten al zinen dantzara?
Bai, plazara, sueltoan egiten nuen dantza. Asko gustatzen zitzaidan dantza egitea. Sueltoan eta danean. Jaiero egoten zen banda plazan. Orduan ere lana egiten zen, egunero. Lanetik atera eta dantzara joaten ginen, mezaren ondoren.

1959ko irudia. Erdian Rosario bere senarra, ahizpa eta semeekin.

Erromerietara joaten al zinen?
Gure garaian, goiz etxera. Ez ziguten uzten. San Pelaioko festetara joaten ginen, 8-10 bikote, haurrekin. Merienda eraman, han egon eta etxera oinez. Orduan ez zegoen kotxerik. Lehen, garizuma gauza handia zen eta mezatara joaten ginen goizeko 6:30ean. Eta kaniketan ibiltzen ginen, intxaurretan jokoan… primeran pasatzen genuen. Gure bizimodua polita zen. Orain ez dago horrelakorik.

Nola ikusten duzu oraingo bizimodua?
Eskasa da lehengo aldean. Lehen beste askatasun bat genuen. Lehen gizonak tabernara joaten ziren eta andre denak umeekin kalera. Orain berriz, andre denak tabernara joaten dira gizonarekin, denak elkarrekin, umeekin ere bai. Gu libreago ibiltzen ginen, emakume artean. Gu, buenoooo, ondo konpontzen ginen!

"Hilea moztu zidaten falangistek berdura plazan"

Gizonak alde batetik eta emakumeak bestetik?
Oso ondo. Nik gizonarekin afaldu egiten nuen, hark kafea, purua eta kopa, eta nik kafea azukrerik gabe aspalditik. Ez duk sekula edan.

Zer moduz bizitzen zenituen San Antonak?
San Anton egunean, Txoritonpeko tunela pasatu eta han zegoen fabrikara joaten ginen lanera, goizeko 5:00etan. Hori bizimodua. Zenbat gauza!

Txoritxo batek esan dit goizeko 6:00etan itsasoan bainua hartzen zenuela...
Bai, izara jantzi, kateorratzarekin lotu eta horrekin joaten ginen hondartzara. Etxeko batarekin bainatzen ginen eta gero izararekin lehortu. 6:30ean etxera eta 8:00etan lanera. Horrelakoxeak ginen gu. Lan eta lan. Atunarekin gauez ere egiten genuen lan. Ez da broma. Haiek joan dira. Ai ama! nahiko kontu esan dut ezta? (barrez bukatzen du elkarrizketa).

Ipuinak irakurriz eta landuz

Kaixo, guztioi:

Gu 6.mailako ikasleak gara. Ikasturte hasiera honetan Aita baten azken hitza ipuina landu dugu. Ipuina irakurri eta ulertu ondoren, jolasak asmatu ditugu esamoldeekin, PowerPoint-a erabiliz. Interesgarria izan da lan hori. Gutxi gorabehera, honela izan da: diapositibaren hondoa txertatu eta efektua ipini. Esamolde bat aukeratu eta WordArt-a erabiliz, bere esanahi arrunta idatzi. Segidan, hiru esamolde idatzi; bat, aukeratu duguna, eta gero, beste bi. Zerrendan ipini. Alboan, borobil bana jarri. Ondoren, esanahiarekin bat datorren esamoldearen borobilari soinu bat itsatsi diogu, eta beste biei, isiluneak. PowerPoint-a aurkezpen moduan jartzen denean, aurrenekoan asmatzen saiatu behar da esanahiarekin bat datorren esamoldea. Oso lan polita izan da egindakoa, jolasak ere dibertigarriak izan dira.

Horretaz aparte, beste hainbat liburu ere irakurri ditugu. Horrela, liburu trukaketa egin dugu. Ingurunean, berriz, Euskal Herriko ibaiak eta mendiak landu ditugu. Interesgarria izan da gure mendien eta ibaien informazioa batu eta lan batzuk egitea. Horietako lan bat izan da mendiak eta ibaiak altuera eta luzeraren arabera ordenatzea. Mendien argazkiak ere itsatsi ditugu. Informazioarekin eskemak egin ditugu.

Unai Lorenzo eta Onditz Goikoetxea.

GETAIKO GAZTE ASANBLADA GAZTETXETIK

Gaztetxia martxa bizian dabil

Kaixo guztioi! Aurrekoan esan genuen bezala, berriz ere hemen gara! Oraingo honetan, gaztetxea geldialditik aterata dago eta martxa bizian dabil, hainbat ekitaldi antolatu ditugu, eta aurrerantzean ere antolatuko dira.

Aipagarria da gaztetxean hasi berri den euskal-dantza taldea. Bertan, 20 lagunetik gora dabiltza dantzak ikasten, 2 andereñoren esanetara. 17 urtetik 30 urtera bitarteko dantzariak daude, baina adin guztietara irekita gaude! Mutilen eta nesken kopurua antzekoa da, eta Irlandako ikasle bat ere badugu! Beraz, hurrengo Euskal Jaietan plazan dantza egin nahi izanez gero, baduzu oraindik aukera gaztetxeko taldean apuntatu eta dantzak ikasteko, guztiz doakoa da eta.

Horrez gain, kontzertuak ere izan dira gaztetxean, eta hurrengo hilabeteetarako txapelketa eta ekitaldi ugari ditugu: xake-txapelketa, poker-txapelketa edo mus-txapelketa; guztiak ere denentzat irekiak.

Beste gai bati helduta, laburki aipatu nahi dugu, nahiz eta GGA politika kontuetan ez den sartzen, Kukutza Gaztetxearen kontuarekin haiei solidaritatea eskaintzea iruditu zitzaigula egokiena, ongizatea sortzen duen proiektu bat ezin daitekeelako horrela amaitu.

Amaitzeko, asanblada sare sozialetan ere badagoela esan nahi dugu; bertan jartzen ditugu gure azken berriak, baita asanbladen deialdiak ere. Bertatik, iradokizunak bidali ditzakezu, baita ekitaldietako argazkiak ikusi ere. Jarrai gaitzazu!
Facebook & Tuenti: Getaiko Gaztetxia.
Twitter: @GetaikoGaztetxi.

G.G.A (Getaiko Gazte Asanblada)

CAMPOSTARRAK GETARIAKO ITSAS ENPRESARI SUTSUAK

XVI. eta XVII. mendeetan, Getarian izandako enpresari-sendi nagusienetako bat izan zen Campostarrena. Sendi horretako kideek burututako ekintzek berebiziko eragina izan zuten Getariako itsas ekonomiak bi mende haietan izan zuen bilakaeran. XVI. mendeko 30eko hamarkadan, Nizatik Zarautzera eta Getariara iritsitako zenbait etorkinek antxo eta sardinetarako sare berriak ekarri zituzten: barredera deritzen arrastesare handiak eta atun-sare deritzen inguratze-sareak. Beste inbertsiogile batzuek bezala, Domingo de Campos ere berehala egin zen atun-sare baten jabe. Gainera, 1539an, Malkorbeko badiako udal-arrantzategia alokaturik zuen Francisco de Estella eta Juan López de Zarauzen elkarteko kide egin zen. Bertan barredera delakoarekin arrantzatutako antxoak eta sardinak gatzatuta saltzen zituzten.



Irudia: Barredera sarea jasotzen

XVI. mendeko bigarren zatian, Domingoren bi semeek, Domingok eta Marcok, zuten beren esku Malkorbeko arrantzategia, eta Getariako salazoi enpresa nagusienaren jabe ziren. Marco de Campos 1570ean hil zen eta bere anaia Domingok aurrera jarraitu zuen bere arrantza eta salazoi jarduerekin. Adibidez, 1580an, antxoa gazitzeko 100 barrika saldu zituen Lapurdiko Bidarte herrira. Malkorbeko badian, antxoa eta sardinaz gain, lazuna ere ugari arrantzatzen zuten, eta arrain hura behar bezala merkaturatzeko, eskabetxea egiten zuen Domingo de Camposek, 1583 aldera. Beraz, eskabetxe-industria Gipuzkoan garatzearen abiarazleetako bat izan zen Domingo. Industria berri hura garatzen hasi eta berehala, arrantzaleek ekartzen zituzten bisiguak erosten hasi zen, haiek ere eskabetxean jarri eta Penintsula osoan saltzeko.

1599an hil zen Domingo, eta izen bereko semeak bultzatu zuen aurrerantzean eskabetxe-industria. Adibidez, 1604an, Urretxuko Juan de Zabaleta eta Mutrikuko Nicolás de Bidazabalekin elkartea sortuta jardun zuen bisigu-eskabetxea egiten. Dena den, bisigua eskabetxean jartzeak garapen handiegia izan zuela eta, Gipuzkoako Aldundia mugak jartzen hasi zen 1600. urtetik aurrera. Azkenean, 1611an, bisigu-eskabetxea egitea galarazi zuen, eta garai hartako Getariako alkate Domingo de Campos atxilotu zuen Aldundiaren ordezkari batek, galarazpena ez betetzeagatik. Gipuzkoako eskabetxe-enpresariek erregearengana jo zuten, eta, 1614an, bisigu-eskabetxea egitea baimendu zuen. Hurrengo urtean bertan, elkarte berria sortu zuen Domingo de Camposek Elgoibarko Alejandro de Sustaetarekin, Madrilgo Toribio Gutiérrez de Bustamante merkatariari 1616ko urte hasierarako 130 bisigu-eskabetxearen zama bidaltzeko.

1619ra arte jardun zuen buru-belarri Domingo de Camposek eskabetxe-negozioan, eta tarte horretan, Lekeition baleharrapaketan jarduten zen elkarte bateko kide ere egin zen. Urte horretan, Malkorbeko badian erabiltzen zuten barredera sarearen irabazien banaketa dela-eta auzia hasi zuen Maria Martin de Camposen senar Santuru de Olanoren aurka. Domingok eta Maria Martinek aitarengandik jaso zuten Malkorben jarduteko barredera sarea, baina elkarrekin ondo konpontzen ez zirela-eta zatitu eta banatu egin zuten. Zati txikiena arrebari tokatu zitzaion, baina bere zatia handitu zuen benetan erabilgarri gerta zedin. Gerora, 1614-1615 aldera, Domingo eta Maria Martinen senarra Santuru adiskidetu, eta berriro ere, batu egin zituzten bi zatiak. Esan bezala, 1619an berrio haserretu ziren, baina orduko hartan ez zuten sarea banatu, eta hura ustiatzeko elkarteak aurrera jarraitu zuen, 1636an Santuru de Olano eta 1637an Domingo de Campos hil ziren arte.

1636an, Santuru de Olano hil zenean, haren alargun Maria Martin de Camposek Basurtotarren barredera sarea erosi, eta Domingo anairekin batera zeukan sareari erantsi zion. Hurrengo urtean, Domingo de Campos hil egin zen, eta doña Petronila de Aizaga alarguna eta adin txikiko zenbait seme-alaba utzi zituen. Horren ondorioz, Maria Martin Domingo zenaren arrebak eta haren seme Pelayo de Olanok kudeatu zuten aurrerantzean sarearen ustiapena. 1638an, Domingoren alargunak, doña Petronilak, auzitara eraman zituen Maria Martin eta Pelayo, sarearen dirukontuak zirela-eta. Bien bitartean, ordea, Maria Martin de Campos hil egin zen, eta 1639an izandako itsas denborale batek sarea erabat hondatu zuen. 1642an, Pelayo de Olanok beste barredera handi bat ekarri zuen udalaren diru-laguntzarekin. Ez dakigu noiz arte jardun zuen Pelayok sare berriarekin arrantzan; baina, zenbait dokumenturen arabera, 1649an artean zeregin horretan zebilen.

Barazki kouskous-a kurry erara

Osagaiak:

- 500g kous-kous
- Litro bat ur
- 2 piper berde
- Tipula erdi bat
- Porru bat
- Kalabazin haundi bat
- Aza erdi bat
- 2 azenario
- Gatza
- Olioa
- Kurrya

Prestaketa:

Barazki guztiak julianan moztu eta olio gutxirekin frijitu 10 minutu inguru, bere puntuan egon arte jarri.
Ura gatz eta olio pixka batekin sutan jarri. Irakiten hasten denean, sutik kendu eta kouskousa gehitu. Nahastu. 3 minutu utzi geldirik. Berriz sutan jarri, kurrya gehitu eta beste 3 minutu eduki nahasten den bitartean.
Kous-kousa eta barazkiak nahastu eta jateko prest dago!

ON EGIN!!



IGELAK BENETAN HILTZEN DIRA



***Idazlea**:*
Iñaki Irasizabal
(Durango, 1969)
***Argitaletxea**:*
Elkar
***Urtea**: 2011*
***Orrialdeak**: 112*

Iñaki Irasizabalen zazpigarren nobela aurkeztera natorkizue hilabete honetan. Suspensea landu izan du, besteak beste, Burua txoriz betarik (2004) eta Gu bezalako heroiak (2009) lanetan.

Aurten argitaratu den lan honetan ere suspensea edo misterioa nagusi da.
Istorioa kostako herri batean gertatzen da. Hamabi urteko neska gazte bat desagertu da, eta neskatoaren bizikleta da aurkitu duten gauza bakarra. Herri txikia izanik, gertaera horrek zeresan handia sortu du bertako jendearengan; susmo eta espekulazio ugari herriko jendearen artean. Neska desagertuaren aitak paper garrantzitsua izango du istorioan herriko udaltzaina baita, eta hala izanda, alabaren desagerpenaren nondik norakoak aztertuko ditu, bere kasa.
Narratzaileak ere berebiziko garrantzia du. Kanpotik etorri berri den mutil gazte bat da eta kontakizunean lehen pertsona ere erabiltzen du. Narratzaileak pertsonaiak ongiegi ezagutzen ditu, gehiegi daki…
Alde batetik, irakurlearen jakin-mina piztu nahi izan du idazleak, eta bestetik, horrelako gertakari baten aurrean jendeak hartzen duen jarrera ongi adierazten du; hau da, jendeak dituen aurreiritziak, kontraesanak...

Aitor Irigoien

Gizon zuria

"Guretzat lautada zabalak, mendilerro ederrak eta ibai gardenak ez ziren basatiak, ezta inguruko animaliak ere. Guretzat Lurra ez zen inoiz basatia izan, emankorra eta eskuzabala baizik. Ekialdetik gizon zuria iritsi, eta gure familiengan injustiziak eragiten hasi zen arte. Orduan hasi zen guretzat basakeriaren aroa."

Sioux Jefea

White man, hombre blanco, l´homme blanc, blanke man, homem branco… Hots, gizon zuria kolonialismoaren hizkuntza nagusi izan direnetan. Eta gizon hitza aipatzean, espresuki gizonak izendatzen ditut, pertsona hitzaren sinonimotzat erabili gabe. Historian zehar, herri zibilizatutzat autodefinitzen garenotan gizonek izan baitute erabateko agintea.

Duela gutxi, horma batean eskuz idatzita zegoen esaldi batek berpiztu zidan gogoeta hau. Hain zuzen, honakoa zioen: "Rumanos ladrones, moros, africanos… todos fuera!". Zur eta lur utzi ninduen mezuak, tristea irizten baitiot XXI. mendean halako ideiek bere horretan jarraitzea. Gaiaz hausnartzen jarrita, alabaina, gure artean, oinarri bereko hainbat adibide aurki daitezkeela jabetu nintzen:

- Hegoamerikarrak alferrak direlako, eta hango txirotasunaren arrazoi nagusia hori delako uste zabaldua.
- Txinatarrak gu konkistatzera datozela, edo guztiaren jabe egiten ari direla dioten komentarioak.
- "Moro" gisa etiketatzen ditugun pertsona denak berdinak – alegia, susmagarriak eta liskartiak- direlako arrazoiketa.
- Jatorrizko herriek naturarekiko izan duten harreman estua, bizimodu komunitarioa eta kolektibismoa medio, bertako biztanleei animalia ezgaiak balira bezala begiratzea.
- Pateratan iristen diren afrikarrak guri lana kentzera datozela defendatzea, beste inork egin nahi ez dituen lanak soilik ematen zaizkiela nabaria izan arren.
- Larunbat gauetan nahiz festetan, kapelak edota loreak saltzen aritzen direnei egiten zaizkien barreak eta mespretxuak.
- Herrialde txiroetara bertako neskatoen gorputzak erabiltzera bidaiatzen dutenen kontakizunen aurrean agertzen den arduragabetasuna.

Haatik, adibide horiez harago, zurion estatuek zein gobernuek atzean duten historiala eta erantzukizuna are arduragarriagoa dela esango nuke: Hego Amerikaren aurkikuntza, Afrikaren zapalkuntza, Ipar Ameriketako indioen genozidioa, nazismoa, Hiroshima eta Nagasakiko bonbardaketa, Hego Afrikako apartheida… Ondorioak argiak dira: erailketak, miseria, indarkeria, giza eskubideen urratzea…Guztiak erlijioaren, garapenaren edota segurtasunaren izenean.

Horrenbestez, gainontzekoak epaitu aurretik, kontuan hartu beharko genituzke gure buruari inoiz egiten ez dizkiogun galderak. Erantzunek ikusi nahi ez dugun errealitate gordina erakusten baitute:

- Denontzat adina baliabide egonik, zein da biztanleen zati handi batek pairatzen duen txirotasunaren arrazoia? Ez al da arraroa natur baliabide aldetik aberatsenak direnak izatea herrialde txiroen zerrendako buru? Zeren, edota zeinen, kontura erdietsi genuen ongizatea?
- Zergatik hemengo enpresa nagusien ondasun gehienek "Made in China, Taiwan…" etiketak daramatzate? Zer dela eta kritikatzen dugu asiarrak hona etortzea, gure enpresek Asia euren industriagune eta giza ustiapenaren paradisu bihurtu dutenean?
- Zergatik ez dugu azaltzen "moroen" delituak salatzerakoan dugun sendotasuna gure estatuek haien herrialdeen aurka guda ekintza bortitzak gauzatzean?
- Berezkoa eta konponbide gabea al da Afrikako egoera? Nola bilakatzen da gaixotasunik ezagutzen ez duen kontinente osasuntsu bat epidemien eta heriotzaren erreinuan?

Zuriok besteekiko azaltzen dugun jarrerak hausnarketa sakona eskatzen du. Izan ere, guztiaren atzean inoiz erabat gainditu ez dugun arrazismoa dagoela iruditzen zait. Besteak baino gehiago garela sentitzera garamatzana; besteei mesfidantzaz begiratzera; gure barneko ezintasun, ahultasun eta gabeziak ezkutatzera. Horrez gain, gizarteko klaseen arteko gatazkan agertu den jokamoldea dago: behe klaseek benetako erantzule den goi klaseari aurre egin beharrean, are eta beherago daudenak -erru gutxien izan eta gehien sufritzen dutenak- kolpatzea...

Horrenbestez, gure jarrerak aldatzen hasteko unea da, norberarengan jarriaz fokua. Terminologiatik has gintezke: zanpatu ditugun herrien gizatasunari, kolektibismoari edota pertsonekiko eta izadiarekiko maitasunari basakeria deitzeari utziz; inposatu dugun kanibalismoa, indibidualismoa edota guztia gorrotatu eta ustiatu beharra zibilizaziotzat hartzea errefusatuz. Bestearen lekuan jartzeko gaitasuna lantzeko ordua da.

Alda gaitezke

Gainontzean, beti bezala jarrai dezakegu, gure aurpegi zuriak are gehiago zuritzen, munduan patu beltza hedatzen, inoiz existitu den hiltzeko makinarik eraginkorrena izaten… Beti bezala jarrai dezakegu, edo alda gaitezke, iraganeko akatsak onartzen eta konpontzen saiatzen. Jada ezin dugu iragana aldatu, baina bestelako gero bat eraiki dezakegu.

Irudikatzen gizon zuriak beste kulturak eta zibilizazioak suntsitu eta bere eredua inposatzen duen egungo errealitatearen ordez, guztiek guztiengandik ikasten eta elkar errespetatzen duten bat?

Kontsumo Alternatibak

elan euskadi
ONGD - GGKE

Aberastasunaren aurka jo, orain! Ielopean Donostiako Zero Pobrezia Plataforma eta Euskadiko beste zenbait kolektibo kalera irten ziren denontzako gizarte justuago bat aldarrikatzeko.

- Ez gara krisitik aterako etengabeko kontsumoan oinarritutako mugagabeko hazkunde ekonomikoa sustatzen badugu. Egoera honetatik irteteko, tokiko bizi eta kontsumo ohitura justuak errebindikatu behar dira, herritarren benetako premiak estaltzen dituztenak.
- Mundu osoko 1.300 milioi pertsonak euro bat baino gutxiagorekin bizi behar du egunero; horrek esan nahi du zerbait gaizki egiten ari garela. Aberatsenen %10 munduko aberastasunaren %85en jabe da, eta horrek ez gaitu epel utzi behar. Euskal biztanleriaren %19 pobrezia edo bazterkeria arriskuan bizi da, eta horrek ekintzara bultzatu behar gaitu!

Zero Pobrezia Plataformak adierazi duenez, "krisi global honek agerian utzi du sistema kapitalista eta patriarkalak pobrezia eta bazterkeriaren adierazpen berriak baino ez dituela sortzen gero eta sektore zabalagoetan, bai gure gizartean bai mundu osoan, bereziki gazte, emakume eta etorkinen artean". Plataformakoek azaldu dute krisi honen jatorria sisteman bertan dagoela; sistema horrek, hain zuzen, biztanleriaren zati txiki baten aberastasuna lehenesten du, gehiengoaren pobretzearen eta planetaren hondamendiaren gainetik.

Horrez gain, salatu dute paradoxikoki gobernuek doikuntza eta murrizketa sozialeko politikak abiarazi dituztela eta hazi egin direla, besteak beste, langabezia, prekarietatea eta bazterkeria.
Zero Pobrezia Plataformako bozeramaileek politikarien erabakia kritikatu dute, mugagabeko hazkunde ekonomikoa proposatu dutelako krisiaren konponbide bezala. "Politikariei berdin zaie nola eta zertarako hazi. Beraz, egungo egoera konpondu beharrean, mugagabeko hazkundeak pobrezia eta desberdintasuna sortzen duen sistema hau iraunaraziko du.
Plataformako bozeramaileek diotenez "denok euskal herritarrak bezala biziko bagina, 3 planeta beharko genituzke munduko biztanle guztiak hornitzeko". Baliabide mugatuko planeta batean bizi garenez, zentzugabekeria hutsa da baliabide mugatu horien ustiapenean oinarritutako mugagabeko hazkunde ekonomikoa sustatzea. Plataformakoek adierazi dutenez, sistema honek ez digu zorionik ematen Iparraldeko herrialdeei; aitzitik, gurpil zoro batean sartzen gaitu, lan gehiago egin behar baitugu gehiago gastatzeko eta zoriontsuago izateko.

ZERO POBREZIA
www.pobrezacero.org

Mundu solidarioa

"Gure esku dago etorkizun eta mundu justu eta solidarioago bat eraikitzea. Lehen urratsa da hazkundearen, kontsumoaren, produktibitatearen edo lehiakortasunaren mitoetatik ihes egitea. Bat egin behar dugu aberastasuna ekitatiboki banatzen duten bizi-ereduekin, ingurumena errespetatu behar dugu eta denontzat bizimodu duina aldarrikatu behar dugu egoera honetatik irteteko. Gizarteak mobilizatu egin behar du eta egoera hau salatu, injustizia sortzen duten gaur egungo politika hauek aldatu nahi baditugu".
Plataformakoek proposatu dute herritarrek gure gizarteen eta gure munduaren norabidea aldatzeko lanean ari diren mugimendu sozialen bidez parte hartzea, itxaropen, mobilizazio eta elkartasun ezaren gainetik.

azkuelek ELEKTRIZITATEA
K21 KALITATEA
- DEKORAZIOA
- ILUMINAZIOA
- ERA GUZTIETAKO INSTALAZIO LANAK
Tailerra/Denda: Araba, 41 (MAXI) 20800 ZARAUTZ
Tel./Fax: 943.13.04.33 - 943.13.33.08
Mobila: 619.52.35.39 azkuelek@euskalnet.net

Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
barne diseinua interiorismo
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@euskalnet.net

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrilan espezialitatea
kaia, 1
20808 GETARIA Tel.: 943 14 04 12

SIZ
Servicios Informáticos Zarautz
Venta de equipos informáticos
Mantenimiento
Academia de informática
Diseño de páginas web

] azaroako agenda

] Ikastaro taillerrak

AISIA IKASTAROAK:
Etorkinentzat euskara ikastaroak:
Izen-ematea: azaroaren 15a baino lehen.
Matrikula: Doan
Hasieran 28 €. Ikastaroa amaitzen duenari dirua itzuliko zaio.
Ikastaroa: 60 ordu

] Balenciaga museoa

HAUR, HELDU ETA FAMILIENTZAKO TAILER DIDAKTIKOAK:
Tailerrak asteburu eta jaiegunetan programatu dira, 10:30etik 13:30era.
Plaza kopurua mugatua.
Izen- ematea: didaktika@cristobalbalenciagamuseoa.com edo tel. 943 00 88 40
Informazio gehiago:
http://www.cristobalbalenciagamuseoa.com/Programacion.html

] Irteerak

[Azaroaren 5a, larunbata]
2011ko ibilaldiak:
Azaroako ireera. Arabako gailurrak:
Larrasa- Toloño (1454m)
[Azaroaren 16a, astezkena]
LODOSAra IRTEERA.
Egitaraua: "Peron" kontserba-fabrikan hamaiketako eta bisita gidatua // Lodosan bisita gidatua // "Valdelares" bodegara bisita // Azagrako "Venecia" jatetxean bazkaria // Bazkal ondoren, dantzaldia, bingo sorpresa…
Irteera - ordua: 09:00etan
Antolatzailea: Arrantzale Zaharren elkartea.

] Azaroa musikaz blai

[Azaroaren 6a, igandea]
Pello Ramirez eta Xabier Zeberio musikarien eskutik "ON" ikuskizuna.
Ordua: 19:00etan
Lekua: Salbatore Deunaren parrokian.
Laguntzailea: Kutxa.

[Azaroaren 20a, igandea]
09:30ean: goiz eresia Getariako Musika Bandarekin.
12:30ean: GETARIAKO MUSIKA BANDAren KONTZERTUA.
Zuzendaria: Aitor Uria.
Ordua: 12:30ean.
Lekua: Salbatore Deunaren parrokian.
[Azaroaren 22a, asteartea]
SANTA ZEZILIA EGUNA
17:30ean: KALEJIRA, txistulari, panderojole eta musika eskolako ikasle guztiekin.
Jarraian plazan, EMANALDIA: Trikitilariak, abesbatza eta dantzariak.
Ondoren, TXOKOLATADA.
19:30ean: MUSIKA BANDAren KALEJIRA.

[Azaroaren 27a, igandea]
12:30ean: GETARIAKO ABESBATZAren KONTZERTUA.
Zuzendaria: Jazinto Isasti
Ordua: 12:30ean.
Lekua: Salbatore Deunaren elizan.

] Zinea, dokumentalak…

Azaroan, igandeko ZINEA EMANALDIAK hasiko dira
17:00etan: ZINE EMANALDIA.
Lekua: Gure Txeru aretoan
Antolatzailea: Guraso Elkartea.
[Azaroaren 15a, asteartea]
"LA CUARTA GUERRA MUNDIAL".

(The Fourth World War, 2003), filmaren emanaldia. 78 min.

Zuzendaria: Rick Rowley
Aktoreak: Michael Franti eta Suheir Hammad.
Ordua: 19:00.
Lekua: Alondegia.
Antolatzailea:
ELAN-EUSKADI.

] Hitzaldiak

[Azaroaren 23a, asteazkena]
HITZALDIA:
"ZAHARTZEA ETA BALIABIDE PERTSONALAK"..
Ordua: 17:00
Lekua: Arrantzale Zaharren Elkartea.
Antolatzailea: Aulas Kutxa - Arrantzaleen Elkartea.

] Jaiak

[Azaroaren 11a, ostirala]
SAN MARTIN JAIAK.
Askizu auzoko jaiak.

] Haurren eguna

[Azaroaren 26a. larunbata]

"Alkate Txiki Eguna".
Antolatzailea: Getariako Guraso Elkartea.
16:00-18:00etan: Tailerrak
18:45etan: Pregoia
19:00etan: Haurren meza
19:45etan : Buruhaundiak
20:30etan: Berdura plazan afaria.

] KZgunea

Ordutegia: 17:00etatik 20:00etara.
Dinamizatzailearen ordutegia:
AZAROAK 4, 11, 18, 25 Arratsaldetan, 16:00etatik-20:00etara.**KZgunea , IKASTAROAK:**
INFORMATIKAKO OINARRIZKO IKASTAROA:
Karpetak antolatzen ikasi, interneten informazioa bilatzen ikasi eta korreo elektronikoa.
Noiz: Azaroaren erdialdetik aurrera (egunak eta ordutegia zehaztuko dira).
Izen ematea: Liburutegian edo telefono honetara deituz, 943862866 (urrian arratsaldez eta azaroan goizez).

] Kirola

Getaraiko IX.Gazte eta Helduen Ezkuz binakako Pilota Txapelketa.
Federatu gabeentzat.
Antolatzailea: Gure Txeru.

] Gaztelekua

[Azaroaren 4a, ostirala]
TOPAGUNEA.
[Azaroaren 5a, larunbata]
PLASTILINA TALLERRA.
[Azaroak 6, 11, 18, 20, 26]
TOPAGUNEA.
[Azaroaren 12a, larunbata]
BANBOLEO TXAPELKETA.
[Azaroaren 13a, igandea]
MUS TXAPELKETA.
[Azaroaren 19a, larunbata]
PULTSERAK HARIEKIN.
***Topagune egunetan Haurraren Egunerako prestaketa lanak egingo dira dagokion taldearekin.

] Gaztetxea

[Azaroak 6, 20 eta 23]
Kontzertuak
[Azaroak 13 eta 27]
Zinea
[Azaroren 18a, ostirala]
Mus Txapeketa
Euskal dantza ikastaraoa:
Asteartetan, 19:30ean

] Bisita gidatuak. Zehatzen ZK

Salbatore eta Zarautz jauregia.
[Azaroak 11, eta25]
17:00etan.
[Abenduak 2 eta 16]
17:00etan.
Asteartetik ostiralera, erreserba bidez ere eskainiko dira bisitak. Bisita hauek aurrera ateratzeko gutxieneko kopurua 8 lagunekoa izango da

www.zehazten.info
tel. 943 00 58 31

Pilotako txapeldunak, 60ko hamarkadan

Hona hemen, 1960. urtean ospatutako Zarauzko pilota-txapelketako txapeldunak eta bigarrenak. Zutik, ezkerretik eskuinera, hauek azaltzen dira: Joxe Luis Alkorta, Antonio Iturbe, Karlos Etxarte, Luis Mari Manterola eta Azkue zumaiarra. Irudian, makurtuta daudenak, berriz, hauek ere ezkerretik eskuinera: Anjel Alkorta, Pedro Uzin, Joxe Mari Iturbe eta Irigoien "Butano" zumaiarra. 60. hamarkadako oroitzapen hunkigarriak askorentzat.

Atal honetan jartzeko moduko argazki zaharren bat baduzu,deitu 943-00 05 48 telefonora edo *artzape@topagunea.com* helbidera bidali.

FULDAIN farmaziaren
zaintza egunak: azaroaren 28tik 30era (biak barne)

zorion agurrak

Julen Aldekoa
Urriak 11
Zorionak, txapeldun!
Muxu bat etxeko
guztien partez.

Exekiel eta Iker Alberdi
Azaroak 9 eta 15
Zorionak eta urte askotarako!!
muxu ikaragarri bana
familiaren partetik.

Norbait zoriondu nahi izanez gero, argazkia bere testutxoarekin Txeruko postontzian utzi edo eta Eskualtxetara eraman. Gogoratu! bazkideok doan daukazue eta bazkide ez zaretenok 4 € ordaindu beharko dituzue argazki bakoitzagatik.

Telefono interesgarriak

Udal bulegoa	943 896 024
Faxa	943 140 190
e-mail: *udala@getaria.org*	
Kiroldegia	943 140 432
Kirol-portua	943 580 959
Taxiak	
Segundo	607 720 242
Jose Mari	607 403 498
Udaltzaingoa	943 896 146
Liburutegia	943 896 147
Anbulatorioa	943 140 653
Botika	943 140 441
Herri Eskola	943 140 729
SOSdeiak	112
Kofradia	943 140 200

ARRAINAK, ITXASKIAK, IZOZTUAK
ELKANO ARRAINDEGIA
KAIA Telefonoa: 943 140 192 20808 GETARIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

artzape

Bazkide-kuota: urtean 20 euro

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....P.K.....Telefonoa:.....

Kontu zenbakia:.....

Sukurtsala:.....

Getariatik kanpo bizi bazara eta aldizkaria etxean jaso nahi baduzu, EGIN BAZKIDE eta bilaliko dizugu!